

Arabako administrazio-batzarren (kontzejuak) izen ofiziala ipini, ordezkatu eta aldatzeko prozedura

Prozedura 98/1995 Foru Dekretuan jasota dago (ALHAO, 1995eko azaroaren 6a), eta 5 urrats hauetan laburbiltzen da:

1. Izena aldatzeko espedientea kontzeju irekiaren erabakiz hasiko da, bertaratutakoen bi herenen aldeko botoekin.
2. Espedientea jendaurrean jarriko da hilabeteko epean, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, erreklamazioak edo oharrak egiteko.
3. Ondoren, espedientea, beharrezko agiriekin lagunduta, Arabako Foru Aldundira eta Euskaltzaindira igorriko da. Erakunde horiek hamar eguneko epea izango dute jasotako informazioari buruzko xehetasun gehiago eskatzeko. Edozein modutan, hilabeteko epean emango dute txostena, erabakia jasotzen duten egunetik hasita edo, argibideak eskatzen badituzte, horiek heltzen zaizkien egunetik kontatuta. Epe horretan txostenik emango ez balute, erabakia aldaketaren aldekotzat joko litzateke.
4. Administrazio batzarreko auzokideek behin betiko onartuko dute izen-aldaketa, bertaratutakoen bi herenen aldeko botoekin.
5. Kontzejuen izen-aldaketak izaera ofiziala izango du Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Arabako Entitate Lokalen Foru Erregistroan jasotzen denean.